

INDIARRAK ETORRI DIRA



Arrate EGAÑA



I.

-Azkenean amore emango duzu, Xalbador.

Bueltaka dabil gizona sukalde handian.

-Barkatu beharko diozu. Zure semea da. Seme bakarra.

Emakumeak eskuak mantalean lehortzen ditu eta, begi heze eta tristeez, gizonari so egiten dio.

-Joan egin zitzaigun, badakit, baina orain itzuliko da, eta denok elkarrekin egongo gara.

Xalbadorrek begirada emakumearengan tinko iltzatzen du.

-Orain beste familia bat dauka, hemengoa ez den familia berria.

-Baina geureak dira, Xalbador, geure ilobak.

Gizona txapela hartu eta kanpora doa, kolpez itxirik atea.

Emakumeak gortina zabaltzen eta senarraren figura astuna ikusten du urruntzen.

Bai, semea Ameriketara joan zen. Baserrian lan asko zegoen egiteko, abereekin eta soroan, baina semeak gurasoen gain utzi zuen dena.

Xalbadorrek txakurra emeki laztantzen du. Ezkerreko saiheitsak min ematen dio. Eta orain etorri nahi duela? Zergatik? Zertarako? Emazte eta seme-alaba amerikarrekin, gainera? Zer jende mota izango ote da hori?

Arratsalde beroak inguratzen du Xalbador. Bideak, hostoz zipristindua, eguzkiaren azken distirak jasotzen ditu. Eskuak poltsikoetan sartuak, burua makur. Txapel azpian ile txuriak agertzen zaizkio eta tximurdurak, keinu mikatza marrazten dutenak, aurpegian.

Hau semea! Askok egiten dute etxetik alde, baina neba-arrebak utziz gurasoei, ez geureak bezala!

Hamar urte. Egunero, gauero, semearengan pentsatzen. Euria, trumoiak, eta semea, non ote? Behiak erditu, letxugak jaso, belarra pilatu, ta semea, non?

Eta orain lan guztia geldirik. Xalbadorrek zerurantz altxatzen ditu begi grixak. Badirudi ez datorrela hodeirik. Bi hilabete euririk ez duela bota. Dena gelditua, dena dago hori eta lehor.

Harri baten gainean eseritzen da. Makila ahaztu egin zaio eta nekatuta dago.

-Kanpotarrak zaunkaka agurtzen irakatsi diat, Lau -esaten dio txakurrari, Xalbadorren ahotsa entzuterakoan buztana astintzen

hasten dena.

Iluntzen ari du, baina ez du erabat belztu. Hotza sentitzen du gizonak hezurretan. Altxatu egiten da etxeruntz abiatzeko. Haserre jarraitzen du oso.

Metak begiratzen ditu, bidexka tristeagoa dirudi, muinoek beren udazkeneko itzal luzeak botatzen dituzte haranen gainean, urrezko haranetan. Hau udazken nazkantea!

Xalbadorrek pausoak mantoagotu egin ditu: haurren ahotsak entzun dira bidezabaletik gora, bere lurretan. Zuhaiak baten atzean eseritzen da txakurra besarkatuz. Hara!, hor datoz indiar-rrak!

Haranetik beraien figurak ikusten ditu muinoan zehar ilargiaren aurrean. Lauk zaunka egin nahi du, baina jabeak ez dio uzten.

Lehenengoa dihoa Mikel, besoetan neskabila daramala. Ondoren emakume bat, ilemotots beltz, distiratsu eta luzeduna. Haurdunaldia oso aurreratua dauka. Azala iluna du, eta arropa pobrea. Eskutik helduta lehenengoa baino handiagoa den beste neska, bi ilemotots luzeekin. Boltsak eramaten dituzte.

Xalbadorrek bere ezkutalekua uzten du familiarekin ez topo egiteko, nahiz eta buelta luzeagoa eman beharko duen etxeratzeko.

Baina beste bat ere agertzen da, mutiko bat. Korrika doa, eta noizbehinka harri koxkor edo loreren bat hartzeko gelditzen da.

Distraitu samarra dirudi. Orain bai, denak igaro dira. Bai familia handia!

-Baratza lehor-lehor egina diagu, lana besterik ez zegok hemen, ezta? - galdetzen dio Lauri gizonak. Ijito antza dute, ijito hutsak, hori pentsatuko dute Pixtikueneakoek, mehe xamarrek etorri zaizkizu Ameriketatik, gizona, esango didate.

Txakurrak, alabaina, ez dio entzun. Korrika batean egin du ospa mutikoaren atzetik eta jolasten hasi dira. Bakarrik gelditu da Xalbador gauari aurre egiteko. Bere prozesio txikiarekin darrai aldapan gora. Euria bezain arrotza egiten zaio familia berria.

Orduak pasatzen ditu izarren babesean: bihar ere egun garbia.

Ene, hau uda luzea! Orain etxean egongo dira denak, sutondotan, odolkiak eta Maria Luisak goizean hil duen oiloa jaten, eta ni hemen, hotza pasatzen, baina ezin dut joan eta "gabon" esan ezer gertatu izan ez balitz bezala, ez, ezta pentsatu ere.

Hasperdura eta ezkerreko sahietsako mina aldi berean datoz, eta etxerantz abiatzen da azkenean. Baserria ilun dago, leiho guztiak beltzak. Sukaldean eseritzen da, nekatuta, eta txakurra hurbiltzen zaio.

-Traidorea, hi.

Ukabilak mahai gainean eta burua esku artean gelditzen du une batez. Altxatu egiten da gero zerbait jatera. Emazteak plater batean utzitako gazta eta intxaurrek dastatzen hasten denean, tximi-niaren gainean dagoen argazkiari erreparatzen dio. Gertutik begiratu eta hor non agertzen zaion indiar-tribua bere lumak eta guzti. Kolorezko denden aurrean daude ile luze eta ilunarekin, serio, besoak bularrean gurutzatuak. Mendi urdinak urrunean, ederrak. Beraz lurra han ere berdea da... Ez dirudi jende gaiztoa denik.

Bapatean aldamenean haur bat duela somatzen du. Begiak gri-



xak ditu, hotzak, eta bera ere haserre dagoela dirudi, Tinko begiratzen dio aitonari.

-Ura - esaten du azkenean.

Begira zer eskatzen didan lotsagabe honek.

-Ura nahiko nitek nik ere, mukizu.

Elkarri begiratzuz, elkar neurtuz, gelditzen dira biak. Xalbadorrek baso bat ur ekartzen dio haurrari.

-Ura - erreplikatzeko dio ilobak.

Argitzen ari du. Maria Luisa, ohea oraindik hutsik sentituz, leihora hurbildu eta hor non ikusten duen senarra haurrekin meta inguruan dantza arraro bat egiten.

II.

-Manu! - aitona dei egiten dio. Eta haurra eskaileretatik jaisten da korrika. Bere begi grixak distiraz bete dira aitona begietan isladatu direnean.

-Goazemak.

-Ez al duzu gosaldutik behar? Maria Luisa, esne-heltzea eskuetan, senarraren aurrean gelditzen da.

-Ez, sagarrak hartu ditut.

-Eta hi, Manu? ilobarengana bueltatuz.

Haurra azkar dihoa txokoan dagoen saskitik sagarrak hartzera.

-Sagarrak jango ditut nik ere, amona.

Eta berehala ateratzen da kanpora, saltoka eta txakurrari deika.

Maria Luisa heltzea suan utzi eta senarrari hurbiltzen zaio.

-Xalbador, mesedez, etorri beharko duzue noizbait familia osoarekin bazkaltzera. Ezin dugu horrela jarraitu. Ea gaur bertan etortzen zareten.

Senarraren marrakak erantzuten dio emakumeari.

Neska bat dator eskaileretatik sukalderantz. Bi ilemotots dauka, eta begi beltz biziak. Aitona ikusterakoan geldi-geldirik geratu da.

Xalbador txapela jarri, makila hartu eta kanporatu egiten da.

-Neska honek bazkaria egiten lagunduko dit.

Amonak musu ematen dio neskatxari. Eskerrak, pentzatzen du, ez dutela lumarik ekarri; bestela, arropa zarpailokin batera, zirkorra bezala etorriko lirakeke Pixtikueneakoak. Pixkanaka txukunduko ditugu.

-Ala nahiago izango ote du aitona eta Manurekin jolastera joatea?

Neskak ezetz egiten du buruarekin.

Ondo bada, orduan...

-Amona - moztzen dio neskatxak -, ama joan egin da. Ahizparekin.

Amona une batez mututu egiten du txundidurak.

-Zer?

-Joan egin dela. Ahizpa eraman du, eta nere boltsa.

Amona logelara dihoa. Ohea hutsik dago. Egurrezko idoloek tinko eusten diote begirada Maria Luisari. Ai ene, ea gaixoa bere familiarengana bueltatu den... Eskailerak korrika jaitsi eta ikuilura doa.

-Mikel! Mikel! Emaztea...!

Lehenengo meta osatua dago ia. Aitona sardearekin kolpe pare bat eman eta han hasten da Manu oihuka eta dantzan metaren inguruan. Aitonari keinuak egiten dizkio bere atzetik dantza egin dezan. Xalbador saiatu egiten da iloba imitatzen, baina, berehala, eskua saihetsean jarrita, arnasestuka, gelditu beharra dauka. Manuk erotuta egongo balitz bezala darrai, aitona geldi erazten dueneino.

-Beno, mutila, nahikoa diagu, hire dantzarekin denok itoko gaituk eta.

Azken esperantza. Iloba hau hemengoa dela ematen du: eroa, alaia, begirada iluna.

Pixtikueneatik pasatzerakoan Malentxo neskatxa beraiengana dator korrika. Atzetik ama oihuka. Lasterketa erdian, ordea, gelditu egiten da, haurtxoaren negarra entzun baitu etxe barruan.

-Egunon Xalbador! Gaur ere euririk ez! - azkarregi oihukatu eta buelta baserrira marrakaka.

-Ez, gaur ere ez - esaten dio Xalbadorrek bere buruari.

Gustora dabil neskatxa bizilagunekin. Honek ere ijitu hutsa ematen du, beti bazterrak nahasten. Ez da harritzekoa, duen ama zoro horrekin...

Neskatxaren neba ere Ameriketara joan zen, baina sei seme-alaba ziren etxean. Gurasoen tristura ez zen horrenbestekoa izango besteak baserrian geldituta. Esku asko laguntzeko.

-Aita ikuiluan zegoen. Zergatik ez diozu inoiz esaten gurekin etortzeko?

Eten egin ditu Manuk aitona pentsamenduak.

-Bai, ikusi diat.

Aspaldian, duela hamar bat urte, haserrearen gurdia igo egin zen, eta ez daki orain nola jaitsi... Edukiko al dut astia semea barkatzeko? Ala barkatu ote diot dagoeneko?

Sagarra eta makila harri baten gainean jartzen ditu, txakurra-
ren ondoan. Noizbehinka belarra pilatzeari uzten dio saihesta
igurtzitzeko. Min honek ez du itxura onik. Manuk aitona-
ren ohiz-
ko ekinga arretaz begiratzen du eta sardearekin belar lehorra
hartzen saiatzen da laguntzeko. Baina laster nekatu eta
Malentxorekin jolasten hasten da. Zuhaitzetara igoten dira egune-
ro.

-Ibili txorakeriatan!

Osatu du azkenean aitona meta. Bizkarra oker-oker egina du,
giltzurrunak zeruari so. Hegaztiaren antza du mutil honek. Agian
Ameriketan haur guztiek egingo dute jolas zuhaitzetan. Baina be-
rehala ahaztu beharko du jolasa, eta lan egiten hasi.

Adar altu batean daude eserita, txoritxoak bailiran, eta ez dute
beheko munduko ezer entzun nahi.

-Han ere, Ameriketan, hau adinako zuhaitz handiak dauzkagu.

Aire epelean dantzan eta xuxurlatuz dabilta hostoak, eta urrez-
koenak, lehorrenak, lurrera erortzen dira.

-Orain hango aitona-ekin hitz egingo dugu. Itxi begiak!

Malentxok agindua bete ondoren, Manuk bereak ixten ditu.

-Deitu behar diot, itxaron.

Hitz politak esaten ditu Manuk, abesti txiki eta xamurraren ant-
zekoak, baina neskak ez dio ulertzen. Une batean geldirik ge-
ratu da dena, hostoak adarretan, adarrak isilik, zuhaitza airean.
Goroxeago, airearen eraginez, hostoen dantza entzuten ahal da.
Aire freskoa, usaintsua.

-Hor dator. Ikusten al duzu?

Malentxok begiak zabaltzen ditu.

-Ez.

-Ez duzu arrano handi hori ikusten?

Neskak Manuren aurpegia besterik ez du ikusten: irribarre le-
loa, burua zerurantz. Aspertzen hasia da jolas honekin.
Gogoratzen du gosaldut gabe aterata dela, eta sekulako gosea jart-
zen zaio.

-Aitona euria egingo duela esan dit.

Malentxok ez dio entzun. Aita ikusi du muinotik beregana dato-
rela, urduri, eta zuhaitzetik jaisten da.

Izerdi patsetan ari da hurbiltzen bizilaguna, kezka aurpegian.

Xalbador baina gazteagoa da.

-Xalbador! Goazen zure etxera! Errainari zerbait gertatu zaio!

Xalbadorrek makila eta sardea bertan utzi eta etxeruntz abiat-
zen dira. Manuk makila hartzen du, eta Malentxorekin batera za-
harren ondoren dihoa. Txakurra, denen gibeletik, arront harritu-
ta; azken boladan, indiarrek zirela medio, ezuste inportanteak ari
baitziren gertatzen.

Xalbadorrek bizilagunari ea zer gertatu den galdetzen dio, bai-
na besteak ez daki ezer. Nahitaez grabea izan beharko du, noski.
Ezin indiar-taldea baserrira ekarri eta guztia normal joatea nahi
izan. Eta semea horretaz ez konturatzeara ere!

Etxe barruan denak daude sukaldean, emakumea eta alaba
ezik. Xalbador eta Malentxoren aita eseri egiten dira. Mikelek eta
bere aitak ez diote itzuleraz geroztik inoiz elkarri begiratu.

-Zer gertatu da hemen? Non duzu emaztea? - galdetzen dio
Xalbadorrek semeari, behera begiratu.

-Erditzera joan da, mendira.

-Mendira?

Xalbador zutitu egin da. Bere ahotsak trumoiaren soinua dau-
ka.

-Bai - Maria Luisa giroa baretzen saiatzen da -, han,
Ameriketan, horrela egiten dute, badakizu, bere herrian...

-Ez zen bakarrik joango!

-Ez, alabarekin -erantzuten dio Mikelek, ilun.

-Bere bila joan beharko dugu... -Xalbadorrek.

-Ezta pentsatu ere! Denak eduki ditu horrela, eta bakean utziko
dugu!

Haurrak lurrean daude eserita. Manuk mahai gainetik argazkia
hartu eta Malentxori erakusten dio:

-Begira, hau nere aitona da.

Malentxok benetako indiar zaharra ikusten du, benetako indiar-
taldearen erdian. Besoak bularrean gurutzatuta dauzka, eta kolo-
re biziko lumazko gangarra, burutik ia lurreraino.

-Amak esan zidan zure familia ikusi zuela "Jeronimo, erreser-
bako burrukalaria" pelikulan.

Errabiaz kentzen dio Manuk Malentxori argazkia, eta aitona-
rengana jotzen du.

-Begira, hau hango aitona da. Batzuetan bisitak egiten dizkit,
eta gauzak kontatu.

Ahots isilez mintzatu zaio Xalbadorri, baina aitak entzun egin
dio.

-Hamaika aldiz esan dizut txorakeria horiek ez esateko! - Esku-
kolpe batez kentzen dio argazkia - Aitona hil egin zen!

Xalbadorrek ezin du jasan oihu zakar horiek bere etxean ent-
zun beharra, baina isilik gelditzen da.

Bi ilemototsetako neskak nebari begiratzen dio, artaga, eta ai-
taren hanken artean ezkututzen da; negar egiteko gogoak dauz-
ka.

Manu Malentxoren aldamenera bueltatzen da, kopetilan. Bere
begiek altzairu kolorea hartu dute.

Bapatean atea zabaldu egin da eta emakumea agertzen da, irri-
barrez. Alabaren sorbalda du eustoki, eta alabak pakete txikia da-
kar. Maria Luisak erditu berria logelarentz laguntzen du, Mikelek
bitartean haurtxoa hartzen duelarik. Denak hurbiltzen dira ikuste-
ra. Mikelek bere aitaren eskuetan jartzen du.

-Mutila da. Xalbador jarriko dioqu.

Aitona haurra hartzen du. Dardar daude biak, zaharra senti-
menduzko zirrarak bereganatua.

Xalbadorrek urruma egin eta Manuri pasatzen dio jaio berria.
Kanporantz abiatzen da Pixtikueakoarekin.

Manu bere aitari hurbiltzen zaio haurtxoarekin.

-Aita -Mikelek kontu handiz hartzen du-, aitona esan dit... eu-
ria egin behar du!

Jaio berriak atzamarra estutzen dio aitari.

-Benetan? Ba al dago hodeirik?

Manuk leihotik zerua arakutzen du.

-Ez, oraindik ez, baina laster botako du eta lan pila egin behar-
ko dugu!

-Bai? - Aitak ez dio arreta handiegiz entzuten.

-Bai, eta aitona lagundu beharko diogu, gaixorik dago eta.

Mikel, semeak esana entzuterakoan, adi-adi jartzen da. Manu
kanpora doa, aitona-arengana, korrika. Mikelek leihotik ikusten du
nola ematen dion makila Xalbadorri. Aitona-lobek bizilagunak
agurtzen dituzte. Etorri garenez geroztik ez naiz ezta konturatu
ere egin aitak makila behar duela ibiltzeko. Asko zahartu da.

Arratsean sekulako zaparrada hasi du botatzen: benetako udaz-
kena azkenean, etxeko sutondoan egoteko modukoa.

III.

Utzi egin beharko diozu mutilari. Ez da haurra.

Mikelek ez du emazteak esaten diona entzuten. Urduri dabil su-
kaldean, haserre, begirada zolutik altxatzeke.

-Baina zer galdu duk han, motel!

Ahotsari mina dario. Manu zutitu egiten da.

-Deus ez. Joan nahi dut eta kito.

Mikel Xalbadorren makila hartu eta kanporatu egiten da sekulako ate-kolpea eman ondoren. Bere emaztea sutondoan dago eserita Maria Luisaren aldamenean. Elkarri begiratzen diote, eta badirudi indiarrek atsoaren irribarre tristea ulertu duela.

-Idatzi noizbehinka - esaten du Maria Luisak. Manuk ez dio erantzuten.

-Malentxo ikustera noa. Gero arte.

Arratsa hotz dago, hezetasuna basterretan. Urrutian aita ikusten du, txamarrarekin. Aitonaren makila erabiltzen du, nahiz eta behar ez izan. Nola esan aitari hura berriro ikusi nahi dudala. Basoa, lakuak, zelai argitsuak eta indiarrek. Gainera berak ere nik egin behar dudana egin zuen.

Makurtu egiten da, atzamarrak lokatzean sartuz, eta ondoren masailak bi marraz margotzen ditu. Agian aitak ezin du ulertu. Ez noa ez maitasun bila, ez dirua egiteko asmotan. Ez noa ihesean. Jakin nahi dudana da beste herrietako jendea nola bizi den, besterik ez. Itzuliko naiz, ziur aski laster, urte pare bat pasa ondoren...

Pixtikueneatik Malentxo ateratzen da, eta Manuri hurbiltzen zaio. Bere gaztaina koloreko ilea bilduta darama mototsean, eta gorputza soingainekoak estaltzen dio. Hotzak gorritz pintatu dizkio sudurra eta masailak. Dardar dago.

-Zer duzu aurpegian? - galdetzen dio Manuri.

-Ezer ez - Kopetilun dago Manu.

-Noiz joango zara?

-Bihar.

Bideska bat hartzen dute. Zeruak Manuren begien kolorea dauka, grisa. Xiri-miria hasi du eta izotza iruditzen zaie gazteei aurpegian sentitzen dutenean.

Haritz baten azpian eseritzen dira. Lurra bustita dago. Arratsa itzal handia da.

-Zurekin joango naiz.

Manuk eskuak gogor ixten ditu. Beste aldera begiratzen du in-pazientziatz.

-Maiz hitz egin dugu horretaz -esaten du amorratuta-. Zu hemen geldituko zara. Bueltatuko naizela esan dizut, eta hala egin-got dut.

-Bai. Bueltatuko zara agian, baina auskalo nola. Zu ez zoaz bakarrik, ezta pentsatu ere.

Manu, ezer entzun nahi ez duelarik, zuhaitzera igo da. Malentxo behean gelditzen da oraingoan.

-Etxera noa dena prestatzera, eta ez baldin banaiz zurekin joaten, bakarrik joango naiz!

Ozenki mintzatzen zaio, zaparrada hasi baitu.

-Galdetu bestela zure aitonei, ziur aski iritsiko zen beste mundura nere erabakiaren albisteak!

Ez da, ordea, ezer entzuten, eta Malentxo korrika hasten da burua soingainekoaz estalirik. Egia baldin bada eurekin hitz egin ahal duzula, esango dizute.

Tantak Manuren betazalen gainean erortzen dira, danborraren gainean bezalaxe, ondoren lepoan zehar irristatuz. Masailetan zerramatzan gerra-markak ezabatu dira. Irribarre leloa agertzen da Manuren aurpegian, hitz busti isilak esan eta bi arrano handi inguratzen zaizkio.

Gero jaitxi egiten da zuhaitzetik etxeruntz abiatzeko. Blai eginik dago. Bihar joango naiz.

Mikel belardian dabil oraindik, txamarra barruan. Bi arrano handiak ikusi ditu. Gauza arraroa lurralde honetan.

Txakurrak beheruntz dauzka belarriak, euria dela eta. Hiri ere hilea zuritzen hasi zaik, Lau. Pena berria kontatuko diat gaur. Gure Manu, badakik... Buru bustia laztantzen dio.

Euriaren kanta basatia besterik ez da entzuten. Hau gaua! Eta semeak bihar alde egin behar... Joan egingo da, baina ez daki ezer, ez artzantzan, ez bi pezetaren truke erotzeko moduko lana egin behar duzula... Ni hara joan egin nintzen, hala da, baina orduan han altxorrak aurkitzea bazegoela esaten zen, eta gaur badakigu hura kimera hutsa zela. Geurean geldituko dira gainontzeko seme-alabak, baina denentzako dago lana, futbol-talde batentzat adina ere badago, euri honekin dena ari da izorratzen. Eta Pixtikueneako neska ere bera bezain kaskagorria dirudi, berekin joan nahi duela eta.

Semeak ez daki ezer. Dena bakar-bakarrik jasan beharko du: hotza, herrimina... Baina hau dena neri gertatu zitzaidana da. Auskalo orain.

Haserrearekin alde batera utzi beharko du Mikelek, nahiz eta asko kosta, eta abisu pare bat eman: zein itsasuntzi hartu, amaren familiaren helbidea badaezpada, arropa...

Baserriko leiho guztiak daude pizturik. Guztiak egongo dira loa galdurik, mutilaren gauzak prestatzen... Hara, zein ote da hori?

Ate ondoan figura ilun bat ikusten du, euria gainean erortzen zaiona, itzal triste eta txikia.

-Gabon - esaten du Malentxok, kezkatu, gizona hurbiltzen zaionean.

-Zer ari zara zu hemen?

Neskak sakotea du eskuan.

-Itxoiten, badakizu joan egin behar dugula...

Hau neska. Ondo egiten du Manuri bakarrik joaten ez uzten.

Bestela ahaztuko luke. Nik ere...

-Tira, goazen barrura, bestela hemen ito egingo gara.

Kanpoan euriak gortina nekagarria dirudi, bide guztiak, bat ezik, patxadaz ezabatuz.

